

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZALDIZ IBILTZEKO INSTALAZIOAK ETA EKIPOAK	Iraupena	40
		Berariazkoa	
Kodea	UF0833		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibiltzeetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zaldiz ibiltzeko oinarrizko teknikak (zeharkakoa)	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Zaldiz ibiltzeko kondizio fisikoa eta zaldiaren gaitasuna.	Iraupena	60
	Zaldiz ibiltzea.		80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator LB1 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zaldiz ibiltzeko erabiltzen diren instalazioak eta materialak ezagutzea eta deskribatzea.

- EI1.1 Zaldiz ibiltzeko erabiltzen diren instalazioen ezaugarriak deskribatzea, eta haietako bakoitzean egin beharreko lanak adieraztea.
- EI1.2 Zaldiz ibiltzeko pistako zatiak fabrikatzeko oro har erabiltzen diren material-motak deskribatzea, eta nola jartzen diren azaltzea.
- EI1.3 Zaldiz ibiltzeko pista batek izan ditzakeen elementuak desberdintzea, eta bakoitzaren erabilera azaltzea.
- EI1.4 Zaldiz ibiltzeko erabiltzen diren instalazioen egokitze- eta mantentze-lanak eta haiek egiteko baliabideak eta materialak aipatzea.
- EI1.5 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauak —zaldiz ibiltzeko erabiltzen diren instalazioei lotuak— adieraztea.

A2: Zaldiz ibiltzeko ekipoa hautatzeko eta jartzeko prozesuetako lanak aipatzea, eta, kasu praktiko batean, ekipoa hori jartzea, animalia-eremuetan ezaugarriak eta egin behar duen lana kontuan hartuz.

- EI2.1 Zaldiz ibiltzeko ekipoa osatzen duten elementuen ezaugarriak definitzea, eta haiek egiten dituzten funtzioak azaltzea.
- EI2.2 Zaldiz ibiltzeko ekipoa zehazki nola gobernatzen duen deskribatzea, zaldiz ibiltzeko ekipoa jartzeko eta egokitzeko.
- EI2.3 Zaldiz ibiltzeko ekipoa osatzen duten elementu bakoitza jartzeko modua azaltzea, jarraitu beharreko ordena logikoan.
- EI2.4 Zaldiz ibiltzeko ekipoa eragindako urradurak eta zauriak izan ohi dituzten gorputz-atalak adieraztea, eta haiek saihesteko neurriak aipatzea.
- EI2.5 Laneko arriskuak prebenitzeko eta animalien ongizaterako arauak —zaldiz ibiltzeko ekipoa jartzeari eta egokitzeari lotuak— adieraztea.
- EI2.6 Zaldi bati ekipoa jartzeko kasu praktiko batean —ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkana—, haiek egitea:
  - Ekipoa behar bezala berrikustea, garbitzea eta antolatzea.
  - Zaldia aztertzea, hari ekipoa jarri aurretik.
  - Zaldiz ibiltzeko moduari egokitutako zaldi bati jartzea eta moldatzea ekipoa.
  - Babesak jartzea, zaldiz ibiltzean hark urratu eta zauririk izan ez dezan.

##### Edukiak

#### 1. Zaldiz ibiltzeko instalazioak

- Motak:
  - Kanpoko pistak.
  - Zaldi-heztegi estaliak.
  - Paseatzeko eremuak.
- Ezaugarriak eta gutxieneko baldintzak:
  - Azalera:
    - Neurriak.
    - Lurzoruaren kalitatea.
  - Itxiturak.
    - Finkoak.
    - Mugikorak.
  - Ekipamenduak:

- Zaldiz ibiltzeko baliabideak:
  - Erreferentzia-puntuak (letrak).
  - Ispiluak.
  - Jauzi egiteko barrak.
  - Zutabeak.
  - Hesiak.
- Egokitze eta mantentze-lanak egiteko baliabideak:
  - Areak.
  - Arrabolak.
  - Eskuareak.
  - Ureztatze-ekipoak.
- Segurtasun-ekipamendua.

## 2. Zaldiz ibiltzeko ekipoak

- Elementu hauen ezaugarriak, muntaketa eta desmuntaketa:
  - Zaldiz ibiltzeko buru-uhalak.
  - Ahokoak.
  - Zaldiz ibiltzeko gida-uhalak.
  - Soka eta uhal bereziak.
  - Zingila.
  - Zaldiz ibiltzeko zelak.
  - Etribuak eta estribuen uhalak.
  - Mantatxoak.
  - Izerdi-zapiak.
  - Lepogain- eta bizkar-babesak.
  - Oin-eskuetarako babesak.
  - Apo-babesak (kanpaiak).
  - Laneko bendak.
  - Ustak.
  - Ezproiak.
- Zaldiz ibiltzeko ekipoak garbitzea eta kontserbatzea.
  - Kontserbazioari, garbitasunari eta mantentze-lanei buruzko teknikak.
  - Garbiketarako eta mantentze-lanetarako produktuak eta materialak.

## 3. Zaldiz ibiltzeko instalazioei eta ekipoei lotutako araudiaren aplikazioa

- Legeak. Estatukoak, autonomia-erkidegokoak eta tokikoak.
- Hauei buruzko araudiak erregulatzen dituen jarduerak: Lan-arriskuen prebentzioa. Animalien ongizatea

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauekoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida.